

ZM

ZORROTZ MORROTZ

56. ZBKIA 2019ko MARTXOA



IKER VEIGA, IZARO BREA ETA ADRIAN GOROSPE

ZORROTZA BHIKO IKASLEAK ETA HAINBAT
MATEMATIKA OLINPIADAKO PARTAIDEAK

ZORROTZA HINTXAK

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

erbeste

edo saiheks baten
alderrikapenak



Aitor Ferdinandino eta Getari Elxegarai
Testua Mikel Ferdinandino



Antzerkia euskaraz



Martxoak 15 Ostirala.

20:00 etan

sarrera dohainik



ANTZERKIA
EUSKARAZ

MORBUS OPERANDI



MARTXOAK 29

20:00 ETAN

SARRERA DOHAINIK



iKasi
MiKasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe



Pinadila etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
📧 sietecampas@gmail.com



Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
📧 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
📠 94 439 97 41
📧 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

FEVE geltokia. Ea oraingoan behin betikoa den!

Pasa den urtarrilaren 23an Bilboko Udalak Sustapen Ministroarekin eta ADIFeko zuzendariarekin batera jarduteko protokoloa sinatu zuen, FEVEren geltokia eta bi trenbide pasabideak lurperatzeko hitzarmen bat sinatzeko bidean. Elkartetik positiboki baloratzen dugu emandako pausoa, baina adi egongo gara eta tentu handiz jarraituko dugu gaia. Oso pozik gaude, baina zoritxarrez, denbora luzez asko dira izandako bizipen txarrak gai honekiko. Ea oraingoan behin betikoa den!

Bestalde, iragan otsailaren 12an eta Auzo Elkarteen 50. urteurrena ospatzeko antolatutako diren ekintzen barnean, Gernikako Arbola-ren kimu bat landatu zen Azoka parkean.

Auzoan gertatuko den guztiaren informazioa helarazten jarraituko dugu, eta gurean egiten diren ekintza ugari eta anitzak goraipatzen.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarritz



Zorrotzako kultur aldzakaria
56. zenbakia. 2019ko martxoa

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzMorrotz

@zorrotzmorrotz

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Aina García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Saül Kurto

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldzakariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukia erantzutez bakarria



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO



MADNES

Tel. 94 441 62 75

ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estrada, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

cafe txinbo

Especialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrada, 10
Tel. 94 608 85 74

Gernikako Arbolaren kimu bat landatu dute Azoka parkean Auzo Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko



Argazkia: Bizkaiko Foru Aldundia

Igor Gutiérrez

Aurten Auzo Elkartearen berrogeita hamargarren urteurrena da eta urtean zehar hainbat jarduera egingo dira hori ospatzeko. Horien artean, otsailaren 12an egindako ekitaldia, zeinetan Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zuten, herriaren aldeko elkarlanaren oroigarri.

Elkartearen sortzaile eta egungo presidentea den Moises Arcek auzoaren lorpenak eta egungo aldarrikapenak azpimarratu zituen eta, era berean, gazteei dei egin zien beraien auzoan inplikatzeko.

Lagun ugari bildu zen Azoka parkeko lorategira ekitaldiaz gozatzen. Juan Mari Aburto Bilboko alkateak eta Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak ere parte hartu zuten. Aburto, bere aldetik, auzo elkartearen garrantziaz mintzatu zen eta Udala- rekin elkarlanean jarraitzeko gonbitea luzatu zuen.

Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek kimuaren egiazkotasunaren ziurtagiria entregatu zion Auzo Elkarteko presidenteari. Landaketa ekitaldian ohorezko aurrezku bat ere dantzatu zen, eta Zorrotzako Mikel Deuna Abesbatzak *Gernikako Arbola* abestu zuen.

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarantz)
Eguneko menua

FEVE geltokia lurperatzeko protokoloa sinatu da Madrilen baina erne darrai auzo mugimenduak

Igor Gutiérrez

Urtarrilaren 24an FEVE geltokia lurperatzeko eta auzoko bi trenbide pasabide desagertzeko protokoloa sinatu zuten Madrilen Bilboko alkate Juan Mari Aburtok, Espainiako Sustapen ministro Jose Luis Ábalosek eta ADIFeko presidente Isabel Pardok. Idazki horretan bi epe aipatzen omen dira: batetik, martxoaren 31 baino lehen ikerketa informatibo bat egingo litzateke eta, bestetik, ekainaren 30a baino lehen, hitzarmen bat sinatuko lukete Udalak eta Ministerioak, non lurperatze lanak erdibana ordaintzeko konpromisoa jazoko litzatekeen.



Horrez gain, aipatu dokumentuak bi administrazioak, Udala eta Sustapen Ministerioa, lotzen omen dituela azaldu dute, hauteskundeak eta gero alderdi politikoak aldatzen badira ere.

Momentuz, protokolo hori ez da publiko egin, beraz, hitzez esandakoan oinarritu gara. Gauzak horrela, auzo mugimendua eskura dituen bide guztiak erabiltzen ari da informazio zehatzagoa izateko. Bien bitartean, mobilizazio ekintzak planteatzen ari dira, auzokideek erne jarrai dezaten.

21. korrika apirilaren 11n eguerdi aldean helduko da Zorrotzara

Zorrotz Morrotz

Bi urterik behin Aek-k antolatzen duen euskararen aldeko lasterketa erraldoiak Zorrotza zeharkatuko du beste behin ere. Apirilaren 4an Garesen hasi eta 14an Gasteizen bukatuko den 21. Korrika gureru helduko da apirilaren 11n, ostegunean, eguerdiko 11:45ean gutxi gora behera. Kastrexanatik sartuko da eta auzoan bost lekuko aldaketa egin ondoren Bilborako bidean agurtuko dugu Montebideo etorbidean.

Aurreko egunetan Korrika ospatzeko hainbat ekitaldi eta ekintza antolatuko dira auzoan. Beraz, adi sare sozialei eta karteiei.



Giro ederra Fray Juan kaleko II. Putxera Egunean



Zorrotz Morrotz

Otsailaren 23an eguraldia lagun ospatu zen Fray Juan kaleko II. Putxera Eguna. Kale horretako hainbat tabernak bultzatutako ekimeneko lehiaketara 10 putxera aurkeztu ziren guztira. Lazko ekainean antolatutakoarekin alderatuta, parte hartzea mantendu da, eta antolatzaileek adierazi dutenez, hurrengo urteetan berriro garai honetan errepikatzeke asmoa dute. Guztien artean Aitor tabernak aurkeztutakoa suertatu zen hoberena. Baina ez zen lan erreza izan saritua aukeratzea. Izan ere, epaimahaiko kideek aurkeztutako putxera guztien maila goraipatu zuten.

Euskal Txokoaren babesa izan zuen ekitaldiak eta 21. Korrika babesteko eta aurkezteko ebaliatu zuten elkarteak kideak.

Zorrozgoiti amestuz proiektuak Bilbao Balioen Hiria saria jaso du

Zorrotz Morrotz

Zorrozgoiti Amestuz proiektuak irabazi du “Bilbao Balioen Hiria Sarien” lehenbiziko edizio honetako sari bat. Bilboko Udalak antolatutako sariak dira, Bilbao Balioen Agiriaren edukiak sustatzen dituzten entitateen ekimenei ezagutza agertzeko.

Epaimahaia Zorrotzakoa eta beste bi proiektu gehiago bereizi ditu aurkeztutako 59 proiektuen artean (39 elkarten kategorian, 14 ikastetxeen kategorian eta 6 entitate profesionalen kategorian). Saritutako proiektu bakoitzak 4.000 euro jaso ditu, saritutako ekimenarekin zerikusia duten xedetarako erabiltzeko.

Proiektuak Zorrozgoiti kaleko eguneko zentroaren ondoko plaza birdiseinatu eta berreraibiltzeko asmoa du, espazio hori

erakargarriago bihurtzeko gazte nahiz helduentzat, halako moldez non komunitatean integratzen lagunduko duen, eguneko zentroaren gertutasuna dela eta.

Komunitate-partizipazio edo –integrazioko plan hori gauzatzeko, Zorrozgoitiko egotzak ideia hori gauzatzen lagun dezaketen agenteen parte hartzea bilatu zuen komunitatean. Hala, bada, proiektua Gure Lurra eta Zorrotzako elkarteekin batera garatzen da, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin.

Proiektuak dakarren proposamena hainbat belaunaldirentzat da; izan ere, ekimenaren xede nagusia dira adinduek eta zahartze aktiboa. Epaimahaia oso balorazio positiboa egin du auzo-elkarteen, merkatarien elkarten eta Zorrotzako beste eragile sozial batzuen parte hartzearengatik.

Adiskidetasun etxaldea

Etxe talde hau Zorrotza Kastrexana errepidearen gainean dau 89 zenbakian eta Zorrozeiti estartaren amaieran aurrean.

1921. urtean inguruen hasi ziren mendiko lurrak mugitzen etxeak egiteko eta 1927an amaitu ebien etxeak. Langileen kooperatiba bat izanda Adiskidetasuna izena ipini eutsien bainan esagunak dira auzoan “hamabostak” eta “eskrabuen etxeak” ezizenekaz bere, lehena hamabost etxe direzela eta bigarrena bertoko jabeak beraien beharrak amaitute egin behar izan ebiezan lur kenketak, mendiko lurrak atontzeko, etxeak eraikitzeko.

Aurreko partean lorategi bat dekote, gaur egun txikiagoa errepidea zabaltean lur zati bat (2m lineal) kendu egin eutsielako eta atzeko partean baratzak, auzokide batzuk ez ebiela gure erosi eta besteen artean erosi zala.

Auzoko behar guztiek (estoldak garbitu, alkantarillak aldatu, argitazpena konpondu....) egin dira auzolan duela gutxi arte, jende barriak erosi dabezenean etxeak eta kanpoko enpresak kontratatzen dira behar horiek egiteko.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZA BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

“Garrantzitsua da gurasook gure seme-alabei zuzenean irakatsi ezin dieguna auzoko ekintzen bitartez beraiek ikastea”



GIOVANNA SECLÉN

Jaioterria: Lambayeque (Perú)

Noiztik: Bilbora 1999an heldu baina Zorrotzara bizitzera 2003an.

Adina: 47 urte

Lanbidea: Telefono bitartezko laguntza

Peruko iparraldean den Lambayeque herritik Bilboraino heldu zen Giovanna duela 20 urte. Bikotea ezagutu ondoren Zorrotzara etortzea erabaki eta 2003. urteaz geroztik hemen bizi da. Auzoko ekintza askotan parte hartzen du eta gainera euskara ikasten ari da euskaltegian.

Testua: Ibai Barrios

Noiz eta zergatik erabaki zenuen Zorrotzara etortzea?

Bikotekidea ezagutu ondoren 2003. urtean auzora bizitzera etortzea erabaki genuen. Aurretik Bilbo hiria izan nuen bizileku eta administrazioan aritzeko gradu ertaina ikasi nuen. Gerora ATS izateko ikasketak burutu nituen lan merkatuan aritzeko aukera gehiago dituelako.

Zer da hemen gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Nahiz eta euria atsegin dudana hemen egiten duen hotza ez dut batere gustuko. Bestalde, batez ere bertako janaria eta ezagututako jende ona da gehien gustatzen zaidana.

Zeren falta sumatzen duzu?

Nire herriko janari eta lagunen falta somatzen dut gehien.

Badakigu euskara ikasten ari zarela. Noiz eta nola erabaki zenuen?

Heldu nintzen momentutik euskara ikasi behar nuela erabaki nuen, betidanik izan dut gustoko eta duela bi urte eman nuen izena auzoko euskaltegian. Mari Feli irakasleak pazientzia handia dauka nirekin, hoberena da! kar kar

Auzoko ekintza askotan parte hartzen ikusi zaitugu...

Zazpi Landako Guraso Elkartearen parte hartzen dut auzoko beste hainbat gurasorekin. Ekintza asko egiten ditugu, jaietan umeei



aurpegiak margotu adibidez. Garrantzitsua da hemen antolatzen diren gauzetan parte hartu eta batez ere gizarteratzea. Auzokide bat gehiago sentitzen naizen heinean ahal dudana ekintza guztietan parte hartu nahiko nuke.

Zure seme-alabei ere balore hoiek irakatsi dizkiezu...

Auzoko ekintzetan parte hartzea asko gusatzan zaie seme-alabei. Adibidez, txalaparta tailerrean eta lbai Arte dantza taldean oso gustura aritzen dira. Gainera, aita hemengoa denez, garrantzitsua iruditzen zait gurasook gure seme-alabei zuzenean irakatsi ezin dieguna auzoko ekintzen bitartez beraiek ikastea.

“ Heldu nintzenetik euskara ikasi behar nuela erabaki nuen, eta duela bi urte eman nuen izena auzoko euskaltegian ”

Horri lotuta, zer falta da zure ustez auzo ho-beago bat izateko?

Zaila da baina etorkin moduan ikusita auzo partehartzaileagoa izatea, hau da, edozein ekintzatan parte hartzeko aukerak egotea.

Etorkizun batean zure herrira bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?

Ez, seme-alabak hemengoak dira eta akatsa suertatuko litzateke hemendik urruntzea.

ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

MONTURA + KRISTALAK ibarraeta luxury OPTICA

149€

PROGRESIBOAK

349€

RPS: 213/18

Jai-Alai
kafetegia

Abaro estrata, 12
94 490 12 59

ZORROTZA HINTXAK

Aho garraxika Zorrotza FC taldearen alde.



Zorrotza Hintxak auzokideak Zorrotza FC taldea animatzera bultzatzeko eta taldeak bizi izan dituen momenturik gorenenak errepikatzeko grinaz sortu berri den taldea da.

Testua: Naroa Peña eta Zuriñe Villa
Argazkiak: Zorrotza Hintxak

Zorrotza FC taldea 1913. urtean sortu zen. Lehenengoko urteetan taldearen ibilbidea irregularra izan zen. 1936. urtean, Gerra Zibilaren ondorioz, taldeak lehiatzeari utzi zion eta ez zuen berriro lehiaketan parte hartu 1942. urtera arte. 70eko hamarkadaren amaieran Zorrotza kirol taldeak bere urrezko denboraldiak bizi izan zituen Estatu futbol ligako hirugarren mailan parte hartzea lortuz gero. Guztira 6 denboraldi jokatu izan ditu hirugarren maila horretan. Azkenengo urteetan Bizkaiko erregionaleko 1., 2. eta 3. mailetan jokatu du, eta aurreko azkenengo maila horretan parte hartu du.

2018ko apirilean, Harrapari Taldeko (Athletic Club-eko Zorrotzako talde bat) kide batzuei, auzoko futbol oinarriaren eta Zorrotza FC taldearen egoeraz kezkatutik, animazio talde bat sortzea bururatu zitzaion. Penaz ikusten zuten Zorrotzako erregionaleko taldearen afizio kopurua gero eta urriagoa zela eta Zorrotza Hintxak taldea sortzea erabaki zuten.

Zorrotza Hintxak taldea, momentuz, 20-25 pertsonak osatzen dute nahiz eta talde itxi bat ez izan, auzoko futbol taldeen zale guztiei zabalik baitago. Haiek, batez ere, taldeak "etxean" jokatzeari dituen partidetara joaten dira ahalik eta ozenen jokalariei animoak ematera. Nahiz eta batez ere auzoan

**Taldeak Zorrotzan jokatzeko dituen
igande goiz guztietan, 11:15etan,
polikiroldegiko futbol zelaian
batzen dira aho garrasika
taldeari animoak emateko**

jokatutako partidetara joan, kanpoan jo-
katutako partida batzuetara ere joan izan
dira. Martxoan Espinosa de los Monterosen
izango den partidara joateko asmoa dute.

Hintxak erregional taldeak Zorrotzan jo-
katzeko dituen igande goiz guztietan,
11:15etan, Zorrotzako polikiroldegiko futbol
zelaian batzen dira aho garrasika taldeari
animoak emateko. Eztarria ondo berotzeko,
urdaiazpikoa, patata tortila eta edari batzuk
eramaten dituzte animatzeko duten bitartean
hamaiketako ere egiteko.

Pasa den urtarilaren 5ean Zorrotza Hin-
txak bere lehenengo ekitaldia antolatu
zuen. Lunch bat egin zen "El 10 de Fray
Juan" tabernan, poteo musikatu bat auzoko
taberna desberdinetan ostean, 19:00etan,
Zorrotza FC - Inter Zogorri partida ikustera
joateko. Partida Zorrotzako taldearen garai-
penarekin amaitu zen. Egun horretatik au-
rrera gero eta jende gehiago animatu da
Zorrotza Hintxak taldearekin bi igandetan
behin bat egitera 11:15etan futbol zelaian.
Beraz, futbola gustuko baduzu eta Zorrotza
FC taldezalea bazara anima zaitez tarte on
bat pasatzera Zorrotza Hintxak taldeko par-
taideekin!



VIA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya

AUTO ESKOLA

KAIKU



Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tfno: 94 427 88 10



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak


Abaro estrala 10

AUPA ATHLETIC


ADRIÁN GOROSPE, IKER VEIGA ETA IZARO BREA:

Zorrotza BHIko ikasleak eta hainbat
Matematika Olinpiadako partaideak

“Hemengo institutuan maila eskasa dagoelako zurrumurrua ei dago. Ba honek argi islatzen du maila ona ere badagoela”



13, 14 eta 15 urte dituzte hurrenez hurren Adrian Gorospek, Iker Veigak eta Izaro Break. Zorrotzako institutuko DBHko ikasleak dira guztiak: 2. mailan dago Adrián, eta 3. kurtsoan beste biak aurten. Hiru ikasleek EHUK, Eusko Jaurlaritzak edota Asociación Pangeak antolatzen dituzten Matematika Olinpiada ezberdinetan hartu zuten parte iaz, oso emaitza onekin. Aurten EHUK antolatzen duen udaberriko proban hartuko dute parte eta horrelako lehiaketan errepikatzeko irrikitan daude. Izan ere, guztiek oso positiboki baloratzen baitituzte bizitako esperientziak. Horretaz jakinda ekuazioa ebazteko haiekin egon gara eta emaitza zuzena da: maila handiko ikasleak ditugu gure auzoko institutuan.



Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailak antolatutako 2018ko Eduardo Chillida Matematika Olinpiadan, Euskadiko 104 ikastetxetako 3000 neska-mutil inguruk hartu zuten parte, denak ere DBHko bigarren mailako ikasleak. Horietatik 225 neska-mutil lehiatu ziren 2018ko maiatzaren 12an burutu zen finalean, Iker Veiga eta Izaro Brea tartean. Ikerrek emaitza oso ona izan zuen. Izarok bikaina, 5-12 tartean geldituta, eta 100 euroko txartel, Casio kalkulagailu zientifikoa eta liburu banarekin saritu zuten bere emaitza.

Adrián Gorospek ezin izan zuen iaz Chillida Olinpiadan parte hartu, DBHko 2. kurtsoa ikasleentzat soilik antolatzen baita, baina Ikerrek batera EHUK eta Askartza Claret ikastetxeak antolaturiko Udaberriko Matematika Lehiaketako bigarren fasera heldu zen. Horrez gain, bere irakaslea den Junkalek *Pangea el-karteak* Estatuan antolatzen duen lehiaketan izena ematera animatu zuen. Sekulako emaitza izan zuen eta bigarren faserako sailkatu zen lehiaketa horretan.

Udaberriko Matematika Lehiaketarako prestatketan hartu ditugu elkarriketa hau izateko

Lehenik eta behin, zorionak iazko emaitzen-gatik. Pozik egoteko modukoak ezta?

Adrian: Bai, zazpigarren sailkatu nintzen udaberriko proban eta "*Pangea*" deituriko beste proba batean ere parte hartu nuen. "*Pangea*" proba aurrekoa baino askoz zailagoa izan zen.

Iker: Nik udaberriko proban eta Chillida Olinpiadan parte harte nuen. Azken honetan gutxi-gatik ez nintzen sailkatu saria izateko, baina oso esperientzia ona izan zen. Jada esan dezaket unibertsitatean egona naizela azterketa bat egiten!

Izaro: Nik Chillida Olinpiadan baino ez dut parte hartu. Oso pozik. 2 orduan lau problema ebatzi behar genuen eta apur bat urduri atera nintzen. Oso arin bukatu nuen azterketa eta txarto atera zitzaidala eta hor bukatuko zela pentsatu nuen... Ba ez: 12 finalisten artean sailkatu nintzen Gasteizen beste proba bat egiteko. Eta hori oso ondo egon zen. Eduardo Chillidaren semearen hitzaldi batean egoteko aukera izan genuen... Norberaren errerealizazioa apur bat ere izan zuen. Beti entzuten da hemengo institutuan maila eskasa dagoela. Ba gutxienez batzuek maila badugu horrelako ekintzetan parte hartzeko.



Nola baloratzen duzue bizitako esperientzia?

Izaro: Gustura errepikatuko nuke. Gustuko dudan zerbait egiten ondo pasatu nuen.

Iker: Oso esperientzia ona izan dela uste dut. Ez da ondo egiteko zerbait, ondo pasatzeko zerbait baizik. Eta nik ondo pasatu nuen.

Adrián: Nire kideak bezala, oso gustura egon nintzen.

Nolakoak izan ziren egin beharreko probak?

Adrián: Problema asko ebatzi behar ziren ordu eta erdian.

Iker: Bai, ordu eta erdian, 20 problema egin behar ziren. Batzuk logikakoak ziren, baina beste batzuetan oso kalkulu konplexuak ere egin behar izan genituen.

Izaro: Chillida Olinpiadan 4 problema izan ziren, eta guztiak bete nituen bat izan ezik, geometriakoa.

Zein izan zen zailena? Antzekoak ziren bertan egin beharreko ariketak eta klasekoak?

Izaro: Ez. Adibidez bete gabe utzi nuena, geometriakoa, ez dugu klasean ikasi oraindik.

Klaseko ariketek ez dute bertakoekin zerikusirik, baina webgune batean daude aurreko urteetakoak eta apur bat prestatu genuen proba joan baino lehen.

Iker: Geometriakoa oso zaila zen. Eta beste batean oso ekuazio konplexua kalkulatu behar zen.

Adrián: Bai. Oso ezberdinak. Eta *Pangea* probakoak askoz zailagoak ziren beste probakoak baino. Azterketa horretan aurrera egiten zen heinean zailagoak ziren ariketak.

Klasean ikasten duzuenaz aparte, prestaketa berezirik izan zenuten azterketarako?

Adrián: Txikitatik matematika asko egin dut etxean, baina probetarako ez dut ezer berezirik egin institutuan. Ostiraletan beste irakasle bat dugu, eta horrekin apur bat baino ez.

Iker: Eduardo Chillida Olinpiada prestatzeko aurreko urteetako ariketak daude webgunean eskegita, sailkatzekoak eta finalekoak. Azken hauek zailagoak dira, eta etxean egin nituen ariketa horiek.

Izaro: Junkal irakasleak erakutsi zigun webgune hori, eta apur bat praktikatu nuen kla-

sean. Etxean ez nuen asko egin, zeren eta saiatzen nintzen eta ateraezinak suertatzen zitzaizkidanez, horrek asko frustratzen ninduen. Baina olinpiadan ondo atera zitzaidan.

Zer da matematikatik gehien gustatzen zaiuzena?

Izaro: Batez ere fisika aldean erabili beharrekoa.

Iker: Gauza asko... Geometria eta ekuazioak, adibidez. Eragin handia dauka irakasleak zelan irakasten duen. Junkal nire irakasleak oso ondo irakasten digu eta horrek nire ustez, eragin handia dauka.

Adrián: Ba ez dakit. Oro har gustukoa dut, algebra izan ezik..

Eta matematikaz aparte, zer moduz beste ikasgaietan?

Adrián: Gehienetan ondo. Euskara da okerrren egiten dudana.

Iker: Ondo noa oro har, baina zientzietako ikasgaiak besteak baina askoz gustukogoak ditut.

Izaro: Ba zientziak oso gustuko ditut baina baita gizarte ikasgaia ere. Eta fisika eta kimika. Ez daukat oso argi nondik joko dudana...

Zertan gustatuko litzaizueke heldutan arietzea?

Izaro: Argi daukat irakatsi nahi dudala, baina ez hain argi zer irakatsi nahi dudana... Zailantzan nago fisika eta kimikan edo gizartearen espezializatzea.

Iker: Nik ez dakit oraindik, baina agian irakaslea. Zientzietakoa, hori bai.

Adrián: Ez dakit. Ez dut oraindik pentsatu.



LABURREAN

Zaletasun bat?

Adrián: Bideojokoak.

Iker: Bideojokoak eta, batez ere, hockeya. Metropolitano taldean jokatzeko dut.

Izaro: Judo, marrazketa eta Bilbao Basket saskibaloia taldea.

Telebistako saio bat?

Izaro: The good doctor.

Iker: The Big Bang Theory eta Friends.

Adrián: The good doctor.

Musika talde bat?

Adrián: Ez dut musika gustuko.

Iker: Batez ere rocka. Iron Maiden eta Queen adibidez.

Izaro: Rocka: Guns N' Roses, Ken Zazpi eta Natalia Lacunza.

Irla desertu batera eramango zenukeen zerbait?

Izaro: Marrazteko blocka.

Iker: Ufa! Ez dakit...

Adrián: Mugikorra.



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

**TABERNA
JATETXEA**



**L@S
LEON@S**

Vicente Zabala parrokoa, 16

SATZ
OKINDEGIAK

**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

Martxoak 2 larunbata

19:30 Gaztetxean. **KONTZERTUA:**
PIMPAMPUNK FEST: SHAM69 +
RADIOCRIMEN + GUILTYBRIGADE +
ACTIVOS.

Sarrera: 10 euro

Martxoak 7 osteguna

19:30 Auzo Etxean. **HITZALDIA:**
IÑAKI URIARTE: Arkitektoa:
“Zorrotza, memoria y futuro”

Martxoak 7-9

ZORROTZAKO INAUTERIA.

Ikusi kartela egitarau osoa ikusteko.

Martxoak 22 ostirala

22:00 Gaztetxean. **KONTZERTUA:**
O´FUNK´ILLO. Sarrera: 10/12 euro

Martxoak 29 ostirala

19:00 Gaztetxean. **ANTZERKIA:**
MORBUS OPERANDI. Dohainik.

Martxoak 30 larunbata

20:00 Gaztetxean. **KONTZERTUA:**
ARPAVIEJAS + SANGRE SALVAJE +
STATE ALERTA. Sarrera: 10 euro

Apirilak 4 osteguna

19:30 Auzo Etxean. **HITZALDIA:**
IÑAKI GARCIA URIBE. Aranzadi
elkarteko etnografoa: Talleres de
Zorroza y la Cruz del Gorbea

Apirilak 7 igandea

19:00 Gaztetxean. **KONTZERTUA:**
2 MINUTOS + BRIGADE LOCO
Sarrera: 10/12 euro

Apirilak 12 ostirala

21:00 Gaztetxean. **KONTZERTUA:**
DISTORSION + POTROTAINO
Sarrera: 10 euro

Apirilak 26 ostirala

20:00 Gaztetxean. **KONTZERTUA:**
LAS MIGAS.
Sarrera: 10/12 euro

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko
hurrengo agendan (maiatza - ekaina)
iragartzeko, zmorrotz@gmail.com
helbidera idatzi apirilaren 17a baino lehen.

Ahuntz gaztaz beteriko kuiatxo



Osagaiak: Ahuntz gazta, kuiatxo, etxeko tomate, olio, gatza, irina eta arrautza

Kuiatxo lamina edo xerretan moztu. Segidan tomate koilarakadaxo bat eta ahuntz gazta xerra bat kuiatxo xerra bien artean ipini.

Irina ostean, arrautza irabiatuan sartu. Zartagina nahiko bero dagoenean, kuiatxo sartu eta bi aldeetatik egin. Ogi xerra baten gainean ipini eta piper orlegi pare bat jarri gainean.

Zailtasun maila: Ertaina.

Prezioa: 1,70 € + edaria.

10 DE FRAY JUAN

Ordutegia:

9:00etatik 23:30ak arte (astearteetan itxita).

Frai Juan, 10. Tel. 608742362 / 944740163

Espezialitatea: Itsaskiz betetako legatza txipiroien saltsan.



Doinua:

Iparragirre abila dela

Guztiak badu bukaera bat

gertatu behar zen horrela

karrera amaitu eta gero zer?

Denak galdezka daudela

eta filologoa

izateko gogoia

ez daukadanez itzela

ikasle legez onartu behar


ederto bizi garela

Asier Urkiza



Rosa itzuli da.

Pako Aristi. Erein. 2018. 224 orrialde.




2013an, Parot doktrina baliogabetu ondoren, ETako militante saldo bat aske geratu zen. Gehienek hogeitertietatik gora zeramatzaten preso. Zer aurkitu zuten herrira itzultzean? Une historiko horretatik abiatuta, thriller politiko bat ondu du Pako Aristik, itzulera orok dakarren zirrara gai askorekin zipriztinduz: senitarteko sekretuak, belaunaldien arteko lotura ezkutatuak, hitzek errealitatearekin daukaten gatazka, ahanzturaren beharra ala oroitu ezinaren kondena, guztia kontakizun biziz eta elkarriketa mamitsuz emana. Historia kolektibo bat, norbanakoen ilusio eta sufrimenduek zeharkatzen dutena. Amodio istorioak ere badaude,

ageri-agerian, edota ezkutuan, tabuaren erresuma itsuan, irakurle bizkorra sumatuko duena, agian, edo ez. Irakurlea asebeteko duen nobela.



**Huts:
Toxiko**

(Gaua Records) 2019



Urte berria hastearekin batera beti erronka berriak agertzen dira gure bizitzan. Musikaren borroka amagabeen damutu ez eta aurrera jarraitzeko puntu horretan aurkitzen da Huts Trapagarango hirukotea. "Toxiko" izenburupean bigarren diskoa kaleratu dute orain dela gutxi eta dagoeneko buru-belarri ari dira aurkezpenekin geografia osoan. Eztanda berri hone-tan 9 abesti aurkituko ditu entzuleak, haien artean

interludio bitxi bat dago. Lan berri honetan apustu handia egin du taldeak eta estilo desberdinak lantzen ditu euren identitatea galdu gabe. Mungiaiko Gaua estudioetan errepikatu dute aurreko lanean bezala eta soinu trinkoa lortu dutela ikus daiteke. Doinu gogorak melodiarekin nahasteko abilezia eta abesti zuzenak dira power trio honen ezaugarri nagusia, zuzenekoetan are gehiago indartzen dena. Hitzei dagokienez, gizarte eta gizaki toxikoen deskribapena eta egunerokotasunean pertsonak egoera haiei aurre egiteko bizi ditugun esperientziak jasotzen ditu. Norbanakoa deskribatu eta autokritika egiteko balioko digu, batez ere gizartearen alderdi toxiko horretan daudenei. Horri lotuta, Joel Delgado ilustradoreak (Memento Design) egindako lan txukuna ere azpimarratu behar dugu, diskoaren kontzeptua ederki islatuz.

Ibai Barrios

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIA!**

**★ independentzia!
SOZIALISMOA!**



ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Zer egin?

Zer gara gu? Edo Joxe

Azurmendik planteatu bezala, zu
zer zara lehenbizi, demokrata ala
euskalduna?

Euskaldunok badugu joera iragana idealizatzeko, geure buruari gezur esperoezinenak ere sinestarazteko. Neolitikotik omen datoreen altxorra darabilgu ahoan, olatu indoeuropearrak suntsitu ezin izan zuen kultura primitibo bakarrenetako frogara. Mitoz eraikitako baserri hura, ordean, bada pixkana higitzen...

Halako batean, herriko plazako lauza zaharra zuloz betetzen hasi zen, erreka bazter lehen eder askoa sasiak hartu, etxerik xarman-tena higatu, herdoiak hartu. Etxe berria ez zaigu gehiegi gustatzen, estrainekoz erabiltzen diren gauzen araztasuna dario. Moldatu behar. Azken finean, bizitza moldatzea ere bada, aroz aroko baldintzei ahalik eta ondoen egokitzea, berriz plazer hartzea. Euskalduna neurotikoa samarra da sortzez, hala deritza nik behintzat. Lehen eta orainaren arteko kinkan bizi da. Asaba zaharen jarauntsia- ren zamak itotzen du, erauzi ezinezko kateko

katebegi sentitzen baita. Era berean, mundu aldakor, eta zergatik ez, zoro honen baitako gizaki lege, eguneroko martxa dihardu jo ta kean, neoliberalismo basatiak zedarritutako erritmo etenik gabe. Hau dena zera galdetzeko, zer egin behar du euskaldun batek gaur eta hemen?

Zu, euskaldun panderojole bertsolari hori, masail gorridun kalimotxo edanzale txit, parrandak besotik helduta kantuan amaitu zale, trikitixaren soinuak sortitzen duen gizaseme alaia, sagardotegi zokoan ezagutzaile aparta, guztien artean jatorrena eta nola ez, abertzalea... Eta zu, euskaldun kulturazale alkandoradun maiz ospindu hori, edozeren gainetik dagoen eusnob fidela, folkloreak mespretxatzaile iaioa, abangoardien jarraitzaile saiatua, bere burua munduko herritar ez-jatortzat aldarrikatzen duena, Mursego eta Lisabö-ren entzule aspertua... Tira, adjektibo bilduma pedante samar honen ostean gaia eremu pertsonalera ekarri, nago ni neu bi euskalduntasun horien erdian nagoela. Eta berriro, zer egin? Ez daukat oso argi, baina neure ustez euskalduntasuna (ber)politizatzea ez legoke gaizki. Politizatzea ez zentzu normatiboan (hori dagoeneko badaukagu, ezta?), zentzu kontrasistemikoan baizik. Alegia, esatea euskaldunok, gaur eta hemen, *ez dugula nahi holako zibilizaziorik.*

Asier Urkiza

Zorrotzako XXIII. ipuin lehiaketa 2019

Aurkezteko azken eguna: maiatzak 17
Non: AEK euskaltegia eta Auzoka Komunitate Zentroa
info gehiago: AEK euskaltegia (Zalbidea 7)

12 URTETIK BEHERAKOAK

- 1. SARIA:** 60 euroko kultur bonoa
- 2. SARIA:** Jolas euskalduna

SARIAK

12 URTETIK BEHERAKOAK

- 1. SARIA:** 100 euroko kultur bonoa
- 2. SARIA:** Jolas euskalduna

Ardatzaletan:



Laguntzaileak:



Babeslea:



Zorrotz Morrotz-eko emakumeek heteropatriarkatu kapitalistari eta arrazistari planto



Martxoaren 8an, emakumeak eta heteropatriarkatuak zapaltzen dituen subjektu anitzak, soldatapeko zein doako lanak egiteari uztera eta kaleak hartzera deituak gaude. Zaintza lanak uzten dituzten emakumeei, balkoian amantala eskegitzeko eskatzen zaie, egunero zaintza lanetan jarduten duten emakumeen lana ikusgarria izan dadin.

Eta bitartean, zein da gizonen papera greba feministan?

- Etxean zein lanean, emakume lankideen lana egiteko haien burua eskaini
- Emakumeen lanuztea babestu

- Kalean egoteko behar duten laguntza guztia eman
- Kontsumo grebara batu
- Beste gizonekin batera maskulinitatearen inguruan hausnartu, gizonen pibiegoez kontzientzia hartzeko helburuarekin
- Mobilizazioetan parte hartu nahi izatekotan, beti ere gogoratzea emakumeen ikusgaitasuna ahalbidetzea garrantzitsuena dela. Emakumeak dira protagonistak!!

Eta guztion artean... **Bizitza erdigunean kokatu!**

SALAKETA ARGAZKIA



Airearen kalitatea: OFF

Dakigula, urteak daramatzate gure auzoko airearen kalitatea neurtu gabe. Akaso datuak ez direlako hain baikorrak. Eta pixkanaka hondatzen hasi dira, arriskutsu bilakatu daitezkeelarik. Bi aukera: berriro martxan jarri ala parketik kendu.



Pintxo onkotarikoenak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Aroko onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!



Taberna AITOR
José eta Juan Carlos
Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

Erantzunik gabeko galderak?

Gure auzoan hainbat arazo, kexa edota aldarrikapen, eten barik euts zaie urteetan zehar: SADER-ren kutsadura, FEVE-ren lurperatzea, ikastetxe publikoen narriadura, elkarbizitza... Garrantzi gutxiago edo larritasun txikiago duten arazoak (espaloiak, mugikortasuna, garraioa, herri-lan txikiak...), halan-holan eta kostata, baina bideratzen dira.

Guretat funtsezkoak diren kezkak ez dira konpontzen; are gehiago, instituzioek duten jokabidea gu entretenitza da; baina entrete-nitu aditzaren hirugarren esanguran: ez arintzea, ezta ere dibertitzea, baizik eta gelditzea, atzeratzea edo gibelatzea.

Sarritan gai potolo horiek ziklikoki agertzen dira, baina burutu gabe. Orain, puri-purian dago FEVE-ren lurperatzea: protokoloa, hitzarmena, informazio-ikerketa, epe berriak... hamaikatz bider entzundakoa. Ikastetxe publikoen egoerataz matrikulazio egiterakoan hitz egingo da, baina bitartean ikastetxe publikoek "bezeroak" galtzen dituzte, ikastetxe pribatuaren onurarako. (Ikasturte honetarako auzoko umeen %42 Zorrotzako ikastetxe publikoetako 2 urteko geletan matrikulatu ziren).

Eta elkarbizitzari buruz, zer esanik ez? Zoitxarez gertakizun larria azaltzen denean, berri-

ro pil-pilean jarriko da. Aurreikustea, neurriak proposatzea, elkarlanean aritzea... orain, zertarako?

SADER

Hondakin arriskutsuen tratamendua eta ongarrien fabrikazioa da SADER lantegiak 30 urte baino gehiagotik Zorrotzan egiten duena, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren baimenarekin.

Aditu baten hitzetan: "Etxebizitzetatik 50 metrora. Ez da normala; minbizia sortzen duten gaiak erretzen ditu, daudenik okerrak. Errauskailu funtzioa betetzen du, nahiz eta enpresak berak horrelakorik ez aitortu. 2008tik dauka Ingurumen Baimen Integratua Saderrek. Lortzen oso zaila den baimena; Bizkaian Zabalgarbik eta Saderrek bakarrik dute. Oso indartsua da Sader, oso desiratu. Eusko Jaurlaritzaren arabera Saderrek ez du aktibitate arriskutsurik burutzen, horregatik hirigunetik gutxiengo distantziarik gorde gabe trata ditzake hondakinak."

Emisioak: karbono dioxidoa, metanoa, karbono monoxidoa, NMVOC, oxido nitrosoa, azufre-oxidoa, nitrógeno-oxidoa eta PM10.

Isurpenak: Arsenikoa, kadmioa, karbono organikoa, kloruroak, kobrea, organohalogenatu konposatuak, kromoa, fosforoa, hidrokarburoak, merkurioa, nikela, nitrogenoa eta zinka.

Zerrendak harritzekoak dira, ikartzeko. Bai airean, bai itsasadarrean botatzen dituen kutsagarriak, gure kalterako.

Orain dela lau urte Udalak esan zuen 2016an jardueraren amaitzea izango zela. Gezur hutsa!

Noiz desagertuko da SADER gure azotik? Zergatik da oraindik indarrean? Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ez badute itxiera agintzen, zer egin behar dugu Zorrotzako auzokideok lortzeko?

Txetxu Rojo

Kilima, familientzako gunea, Auzokan

Jolasteko modu asko daudela erakutsi nahian jaio zen Kilima; Gure Lurra elkar-teen kide den talde baten ametsa egia bihurtzeko. Estatuko beste hiri batzuetan martxan dauden proiektuak ezagutu ondoren, Zorrotzara jolas liberako gunea ekartzeko proposamena egin zuten. Auzoka Komunitate Zentroaren irekiera aprobetxatuz, ideia aurrera eramateko aukera eduki zuten.

Baina zer da Kilima? Kilima, 0-5 urte bitarteko haurrak dituzten familientzako jolas liberako gunea da. Familientzako topagunea, seme-alabekin jolaserako denbora partekatze, euren interesak eta beharrak behatzeko baita haien garapen prozesuan laguntzeko ere.

Jolas liberako guneaz aparte, astelehen, astearte eta asteazkenetan zabalik dagoena; gurasotasun positiboa sustatzeko tailerrak eta formakuntzak ere eskaintzen dira.

Familientzako Yoga ikastaroa, umeentzako lehen sorospen tailerra, familientzako diziplina baikorra eta zentzumenekin esperimentatzeko tailerrak izan dira hilabete hauetan egindako batzuk.



Kiliman parte hartzea guztiz doakoa da eta ekintza berezietan parte hartzeko kantitate sinboliko bat eskatzen da soilik.

Kilimaren kide izateko gogoak piztu zaizkizu? Zatoz nahi duzunean eta eman izena! Beste familiak zu ezagutzeko irrikari daude!



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



Maite

Jeitsiera asko gustatzen zait, kolore bizia ematen dio auzoari. Auzoan ospatzen diren ekitaldi guztiak garrantzitsuak dira.



Sandra

Ahizpa eta biok parte hartzen genuen urtero, baina azken urteetan lan egin behar dudanez ez dut parte hartu. Jeitsiera ikustea oso polita da, auzo osoa elkarrekin!



Inauteria
Jaitsieran parte hartuko duzu??

Narrea Peña



Fernando

4 urte daramagu parte hartu gabe, baina aurren kuadrilla osoa parte hartuko dugu. Gustatzen zaizkit, txikitan ez geneukan mozorratzeko ohitura, eta pixkanaka bizipena barneratzea nahi dugu.



Manoli

Urtero mozorrotzen naiz. Lehen jende gutxi mozorrotzen zen, baina orain kuadrilla pila bat ikusten da, eta hori oso polita da.



Pepi

Ez dut parte hartzen normalean, baina honelako ekitaldiak gustuko ditut. Auzoari bizitza gehiago ematen dio

amc
diseinua

Diseinu grafikoa:
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: **Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net**


PICOS
burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86

Regalos
Omega
oparidenda

Fraile Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com

Bilbon euskaraz



Bilbao

▶ www.bilbaoeuskaraz.eus



...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritzarik gabe?

**ESKAINTZARik ONENA
ZORROTZAtik
IRTEN BARIK**

**Berton
kontsumitu**



Izan korrika laguntzailea

Klika KORRIKA!

12 euroren truke,
garrantzitsuena lortuko duzu:
AEKren euskaltegiei
laguntzea. Horrez gain, pina
eta txartelaren abantailak
eskuratuko dituzu.



Info gehiago:
Zorrotza æk,
Zalbidea, 7

www.korrika.eus

